

# COMPLEXITY NAVIGATION ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA

Ikasi nahi al duzu konplexutasunean eta aldaketan nabigatzen zure eguneroko profesional eta pertsonalaren ataltzat hartuta? Hauxe duzu zure neurriko ikastaroa!

<b>GAIA</b>	Hezkuntza
<b>ECTS/ORDUAK</b>	150 ORDU
<b>EGUTEGIA</b>	2022/02/25 - 2022/04/02
<b>TOKIA</b>	Madril TeamLabs
<b>HIZKUNTZA</b>	Gaztelania
<b>MODALITATEA</b>	Erdi-presentziala

Informazio gehiago  
eta izen-ematea

## AURKEZPENA

Ikasi nahi al duzu konplexutasunean eta aldaketan nabigatzen zure eguneroko profesional eta pertsonalaren ataltzat hartuta? Hauxe duzu zure neurriko ikastaroa!

## NABARMENDUAK

- ✓ Erreferentziatzko bi erakundek eskainia: Mondragon Unibertsitatea eta TeamLabs
- ✓ Analisisa, diagnostikoa eta errazte-lana egiteko tresnak eskuratuko dituzu
- ✓ Elisabeth Pastor Humantific-eko kosortzaileak koordinatua
- ✓ FUNDAEren bitartez hobaria jaso daiteke

## KONTAKTUA

### HARREMANETARAKOPERTSONA

**JULENE GORROTXATEGI**

600 02 27 20

[idadzkaritza.huhezi@mondragon.edu](mailto:idadzkaritza.huhezi@mondragon.edu)

## HELBURUAK

- Lantalde baten ezaugarri garrantzitsuenak identifikatzea eta haren bertsiorik onena erdiestea.

- Talde-ikaskuntzako prozesuetan eta ikaskuntza eta berrikuntza gizarteratzeko praktika eta prozesuen garapenean sakontzea.
- Talde-ikaskuntzaren analisia, diagnostikoa eta errazte-lana egiteko tresnak eskuratzea haren heltze-prozesuko hainbat unetan.

## NORI ZUZENDUA

- **Enpresa-erakundeetako eta hirugarren sektoreko erakundeetako ikaskuntza-prozesuen eta ezagutzaren kudeaketaren arduradunak** eta langile teknikoak.
- Talde-prozesuak aktibatzeaz arduratzen diren **eragile kulturalak eta gizarte-hezitzaileak**.
- Edozein diziplinako lantaldeen lidergoaren ardura duten profesionalak.

## PROGRAMA

### Nola ikasi konplexutasunean eta aldaketan nabigatzen gure eguneroko profesional eta pertsonalaren atalzat hartuta?

Modulua konplexutasunaren nabigatzaile (Complexity Navegador) bihurtzen laguntzeko metodo eta tresnen ikaskuntzaren inguruan antolatuta dago.

Moduluaren garapenean, Humantific lan-metodologian definituriko pauso jakin batzuk betetzen dira, tresna eta trebetasun oinarriko eta espezifikoekin lan egin dezazun, haien aplikazioaren testuinguruan.

Gainera, pauso bakoitzean, elkarrekin konbinatzen dira konplexutasunean nabigatzen ikasteko beharrezko diziplinak. Arazoen ebazpen sortzailea (CPS); zentzua eraikitze (Sense Making) diseinua eta bisualizazioa; Design Thinking-a, erronkan parte hartzen duten pertsonak ulertzeko; eta egokitzeko gaitasuna prozesu guztian zeharreko jarrera zeharkako eta jarraitu gisa.

#### Programa:

Ikastaroa egituratzeko, lantaldeak sortzeko eta finkatzeko sekuentzia logikoari jarraituko diogu, norbanakoarengandik hasi eta heltze-fase batera iritsi arte. Azken fase horretan, lantaldeak ikasten duen **erakunde bizi** gisa funtzionatzea lortuko dugu, jarduten duen testuingurura eta lantaldeko kideetara egokituz.

Sei astean zehar, honako **kompetentzia** hauek gehituko dituzu zure **errazte-erraminten kaxan**:

#### **The First Contact**

Taldean ikasteari buruzko teoretarako lehen sarrera baten ondoren, lehen blokeko gai nagusia hau izango da: norbanakoa eta haren gogoeta lantaldean duen egoeraz (kompetentziak eta rolak). Honako hau ikasiko duzu:

- Talde bateko kideen ezaugarrien analisi objektiboak egitea.
- Lantaldeko kideei autoanalisirako eta taldean ikusgaitasuna lortzeko tresnak ematea.
- Lantaldeari erronka motibagarri bat eskaintzea, energiak kitzikatu eta aldi berean talde-lana bideratuko duen misio bat sortzeko.

#### **Into the Deep**

Bigarren blokean, talde-lanean harremanekin zerikusia duten alderdiak landuko dituzu:

- Lantalde bateko kideen arteko konfiantza lantzeko esparrua diseinatzea eta inplementatzea.
- Lantaldeko elkarrizketaren kalitatea hobetzea.

### **We are Rising**

Lantaldeak ebaluatzeko irizpideak definitzen eta lantaldearen helburuak modu eraginkorrago batean lortzeko oinarriak eraikitzen ikasiko duzu. Bloke honetan, alderdi hauek landuko dituzu:

- Taldeko jokabideari buruzko diagnosirako teknika propioak garatzea.
- Sintesirako gaitasuna hobetzea lantaldearen prozesuetan eta indarguneak detektatzea.
- Lantaldeen lana neurtzeko irizpideak txertatzea.

### **Fullness Team**

Bi gai nagusiren inguruan hausnartuko dugu: zertarako egiten ditu gauzak lantaldeak?, nola landu ditzakegu konpromisoa eta, aldi berean, emaitzak, konpromiso hori benetakoa izan dadin? Honako alderdi hauek ikasiko dituzu:

- Lantaldearen asmoa eraikitzea eta aktibatzea.
- Lantaldearen konpromisoak sortzea.
- Emaitzek lantaldearen bilakaeran duten funtsezko zeregina ulertzea.

### **We are THE TEAM**

Nola igaro **gatazka** eta desadostasunetatik etengabeko ikaskuntzarako, berrikuntzarako eta etengabeko hazkuntzarako uneetara.

Lantaldea, organismo bizi bat: ikaskuntza, egiturak eta lidergoak.

## **MATRIKULA**

Izena emateko, bidali [eskaera-orri](#) hau **idazkaritza akademikora**.

- [idezkaritza.huhezi@mondragon.edu](mailto:idezkaritza.huhezi@mondragon.edu)

**Izena emateko epea:** 2022ko otsailaren 22a.

Fundaeren bitartez, % **100eko hoberia jaso daiteke**.

## **KOORDINAZIOA**

- Agurtzane Martinez: [amartinez@mondragon.edu](mailto:amartinez@mondragon.edu)
- Beatriz Garcia: [beatriz@teamlabs.es](mailto:beatriz@teamlabs.es)

## **ERAKUNDEA**

[TeamLabs](#) ikaskuntza-laborategiarekin elkarlanean diseinatu dugu ikastaro hau.

## FINANTZIAZIO ITURRIAK

Ikastaro honetan, FUNDAEren bitartez, % 100eko hobaria jaso daiteke.

Behar duzun gauza bakarra zure enpresari eskaera egitea da (erakundeek dute kredituaren hobaria jasotzeko aukera). Hortik aurrera, gure kontu egingo dugu kredituari dagokion kudeaketa, aholkularitza eta egiaztapena, aholkulari espezializatuen bitartez.

## JASOKO DEN TITULAZIOA

Mondragon Unibertsitateko Complexity Navegation ikastaroko parte-hartze ziurtagiria (6 ECTS)

## PREZIOA

Alumni elkarteko kideek %10eko deskontua izango dute ikastaro honetan.

## INFORMAZIO GEHIAGO

Julene Gorrotxategi

[idadzkaritza.huhezi@mondragon.edu](mailto:idadzkaritza.huhezi@mondragon.edu)

600 02 27 20

---

<https://www.mondragon.edu/cursos/eu/complexity-navigation-espezializazio-ikastaroa>